

EGILE-ESKUBIDEAK MENDERATZEKO AUTOIKASKUNTZA-JARRAIBIDEAK

Egile-eskubideak menderatzeko ikastaroa auladerechodeautor.org webguneko materialarekin eta azterketekin osatuko da. Zure lorpenak gordetzeko, auladerechodeautor.org webgunean erregistratu behar duzu.

Lehenik eta behin, ebaluatu egile-eskubideei buruzko zure trebetasunak ebaluazio-formularioaren bidez. Egile Eskubideen Ikasgelan landutako material-sorta osoa egin ondoren, ebaluatu berriro zure ezagutzak, egile-eskubideak menderatzen dituzula berresteko.

Zorte on egile-eskubideen lurralderako bidaiari!

A. EGILE-ESKUBIDEAK IKASTEA

Egile-eskubideei buruzko ezagutzak

- Irakurri egile-eskubideei buruzko oinarritzko kontzeptuak *Egile-eskubideen gidaliburuan* (6-10 orrialdeak) eta erreproduzitu egile-eskubideen bideoa.
- Errepasatu «Egile-eskubideek sormen-lana babesten dute», «Egile-eskubideak zuren lanean» eta «Egile eskubideak, Internet eta sare sozialak» ataletako materiala, bai eta erabilera pribatuko laburpenak ere.
- Ikertu. Zer eskubide-mota aitortzen diete egile-eskubideei buruzko arauak obren egileei? Sorkuntzaren alorreko zer ekoizpen-motak lor dezake egile-eskubideen babesa? Nork jasotzen ditu egile-eskubideak bere obragatik? Zer eskubide-mota lor ditzakezu zure lanagatik, eta zer esan nahi dute eskubideok?
- Egiaztatu egile-eskubideei buruzko zure ezagutzak galdetegiaren bidez. Gainditu ondoren, igaro zaitezke hurrengo trebetasun-paketera.

2 Materialak erabiltzeko trebetasuna

- Aurkitu zeure kabuz nola erabil ditzakezun beste pertsona batzuek sortutako obrak eta materialak zure lanean.
- Kantsultatu irudiak hartzearekin eta argitaratzearekin eta lanak erabiltzearekin lotutako arauak *Egile-eskubideen gidaliburuan* (11-13 orrialdeak) eta erreproduzitu *Obren erabileraren bideoa*.



- Berrikusi, halaber, proiektuaren, bideo-proiektuaren eta irudiak ateratzearen inguruko laburpenak.
- Egiaztatu nola egin erreferentziak iturri desberdinei eta nola aipatzen den testu bat; hau da, nola hartzen diren aipua edo erreferentziak. Zuzeneko aipu bat eta erreferentzia bat egiteko jarraibideak, adibidez, Hizkuntzako testuliburuan edo hemen daude.
- Berrikusi berriro nola aipatzen diren iturriak, eta prestatu bibliografia bat proiektu bat lantzeko materialarekin.
- Azkenik, egiaztatu zenbaterainoko trebetasuna daukazu obrak baliatzeko, Egia ala gezurra jolasarekin. Gainditu ondoren, igaro zaitezke hurrengo trebetasun-paketera.

Informazioa bilatzeko trebetasunak eta irakurketa-gaitasun kritikoa

- Proiektu bat lantzeko materialarekin, ikasi lehenik eta behin zer etapa biltzen diren norberaren ekoizpenean (testuak edo beste lan batzuk), pertsonalki lortutako eta beste pertsona batzuek prestatutako materialaren emaitzen arabera. Arreta bereziz aukeratu iturriak: zer-nolakoa den iturri fidagarri bat, nola identifikatzen den, eta zein iturri-mota den funtsezkoa lanaren ikuspegitik.
- Bilatu askotariko iturriak Interneten jorratu nahi duzun gaiari buruz (edo egungo edozein auziri buruz). Baloratu zenbateraino diren fidagarriak, egokiak eta erabilgarriak iturriok zure ikastaroko lanerako.
- Egiaztatu iturriak nola aipatzen diren eta zer-nola egiten zaien erreferentzia iturriak aipatzeko gidetan. Gogoratu, halaber, nola jaso behar den beste pertsona batzuen testuaren erreferentzia edo aipua, edo nola egin behar den testu baten zuzeneko aipua erreferentziak egiteko jarraibideekin.
- Probatu informazioa bilatzeko zure trebetasunak bingo-jolasaarekin. Gainditu ondoren, egile-eskubideei buruzko ezagutzen azken azterketara igaro zaitezke.

B. EGILE-ESKUBIDEEI BURUZKO EZAGUTZEN AZKEN AZTERKETA

Egile-eskubideei buruzko hiru trebetasunak gainditu ondoren, azken azterketa egin dezakezu. Gogoratu: inprimatu zure diploma eta eman irakasleari edo enpresari.

Bete autoebaluazio-formularioa. Hausnartu zer-nola garatu diren egile-eskubideei buruzko zure ezagutzak eta trebetasunak lanean ari zinela.

ZORIONAK! OSATU DUZU EGILE-ESKUBIDEAK MENDERATZEKO IKASTAROA.

